




Athletic onenen artean egongo dela dio Javier Clementek /26



Patxi Noblia: «10 milioi eta 3.000 enplegu behar ditugu» /15



Landsbergis: «Erresistentzia eguna heldu da Lituanian» /21

EUSKALDUNON

Egunkaria

Osteguna, 1990ko abenduak 6 / I. urtea / zenbakia / Salneurria: 70 pzt. / 4,5 libera

HIZKUNTZA

Kalean %7,7ak euskaraz

Euskal Herriko hamar mila biztanletik gorako herri eta hirietan batz bestea %7,7ak erabiltzen du euskara kalean. EKBk plazaratuko duen Bat soziolinguistika aldizkariak dakar aipatutako neurketa. / 8

EEBBko tankeak berriro Panamako kaleetan

Tanke iparramerikarrak berriro irten ziren atzo Panamako kaleetara, Kanaleko nazioaren inbasioaren lehen urtemuga betetzeko hiru aste falta zirenean. EEBBko soldaduek gartzelatik ihes egin dako Eduardo Herrera koronela inguratu eta harrapatu zuten, beti ere Panamako gobernuak eskatuta, Washington-en azaldu dutenez. Armada panamarra desegin eta gero sortutako Polizia Zibilaren buru izan zen Herrera, baina Endara lehendakariak gartzelaratu egin zuen. / 21

Erreferendumaren alde dago gipuzkoarren %68a

Gipuzkoako biztanleen %68ak herrialde hau eta Nafarroa arteko garraibidearen auzia erabakitze bide ona deritzo erreferendumari, GITE-IPES ikerketa elkarteak azaroaren 22an 1.200 gipuzkoarren artean egindako inkestako datuek dienez. Sondeo soziologiko hau Erreferendumaren aldeko Herri Ekinaren eskaeraz burutu da. Autobiak Leitzaran bilaratik ez duela iragan behar uste dute gipuzkoar gehienek. / 6

Terra Lliureko Bascompte bere auziaz mintzo

Montpellier-eko Epaitegiak gaur erantzungo dio Pere Bascompte errefuxiatu katalunarraren aurkako estradizio eskaerari. Bere etorkizuna «Frantzia eta Espainiaren arteko beste negozio bat» dela esan du Terra Lliure-ko kideak EGUNKARIARI eskaintako elkarrizketan. / 19

Gaur irekiko ditu ateak Durangoko 25. Azokak

Henriette Aire idazleak egingo du sarrera hitzaldia

Laurogeitabat argitaldarak erakutsiko dituzte beren azkeneko lanak, aurreko zilarrezko urtea betetzen duen Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko Azokan. Ehun eta berrogeitalau stand-etan bilduko dira azken aldiko liburu eta disko guztiak gaurtik hasi eta igandera bitartean.

Goizeko hamar t'erdietan zabalduko badira ere Azokako ateak, arratsaldeko seieta egingo du Henriette Aire idazleak sarrera hitzaldi ofiziala.

Eskola eta unibertsitate ikasketetarako testuliburuak izango dira aurreko kopuruz ugariak, nahiz eta literatura lan berriak izan ohi diren protagonistak. Rafa Egiguren, Patxi Ezkiaga, Joxe Belmonte, Edorta Jimenez, Andoni Egaña eta Mariasun Landaren liburu berriak izan litezke entzutetsuenak.

Liburu eta diskoen erakusketa eta aurkezpenak gain, mahai inguruak, poesia errezitalak, bertso saioa eta kantaldiak izango dira Durangon lau egun hauetan. Xabier Lete eta Antton Valverde bihar gauean eskainiko dutena da kantaldien artean aipagarriena, eta bertsotan, igandean egingo den Araba eta Bizkaiko Txapelketaren finalaurrekoa.

Durangoko Azokaren lehen edizioa 1965ean egin zen Andra Mariko elizpean Gerediaga Elkarteak antolatua eta 1967an bigarren, 1966an elizpean konpontze lanetan ari zirelako. Bizkaiko Gobernu Zibilak azoka elizpean zabaltzea debekatu egin zuen 1970ean, eta horregatik aurreratu zen gerora hain ezagun bihurtu den azoka plaza. / 29-31



NEGOZIAKETA aukera gutxitu egin da Pertsiar Golkoko krisialdian. Saddam Husseinek Estatu Batuek hizketaldietarako ezarritako baldintzak ez dituela onartuko aurreratu zuen atzo. Irakeko lehendakaria Palestina, Iemen eta Jordaniako liderrekin bildu zen Bagdaden eta Ekialde Erdiko arazoak globalki tratatu behar direla azpimarratu zuten. EEBBen aldetik ere, aurpegi zorrotzak. Irakek

Kuwait uzten ez badu EEBBk indarra militarra modu «oldartsu, masibo eta azkarrean» erabiliko duela mahatxatu zuen James Bakerrek atzo. Bitartean, Golkoan dagoen 'Numancia' untxi espainolean marinel andaluz bat, Ignacio Romero Romero, hil egin zen misilak botatzeko kanioi batek jota. Soldadu profesionala zen San Fernandon (Cadiz) jaiotako gazte hau. / 23

Agur t' erdi

Euskaldunon aspaldiko ametsa egia bihurtzen dugu EGUNKARIA plazaratzean, eta milaka euskaltzaleen bultzadari esker ekiten diogu bide berri honi. Azken urteotan euskal kulturak lortu duen elkartasunik zabalaren babesean sorturik, egunkari nazional, euskaldun, independente eta zabala eskaintzea da gure ahalegina. Aurrerapen teknikoaren erabilera egoki batekin, EGUNKARIA burutzen dugun ekipo osoak euskarazko prentsari Euskal Herrian saltzen diren erdarazkoen artean leku duin bat egitea du helburu, euskaldunak eguneroko informazioa bere hizkuntzan hartzeko duen eskubidea erabili ahal izan dezan. Ziur gaude beren publizitatea eskainiko diguten enpresei, euskarazko edozein mediok behar dituen dirulaguntzak eman behar dizkiguten erakunde publikoei eta funtsean gure bultzatzaile sutsuenak ditugun euskaltzaleen babesari esker. EGUNKARIAK etorkizun oparoa izango duela. Euskal nazioaren eta euskararen aurrerapenaren alde lehiatu direnentzako da gaur gure oroimena, zailtasunen beldurrik gabe projektua martxan jartzen laguntzen duten guztientzako gure esker ona eta Euskal Herri osoarentzako gure EGUNKARIA.

BESTERIK

POLITIKA

EAJk asteartean hartuko du PSE-PSOEekin negoziaketan segitzearen erabakia / 4

GIZARTEA

EHUko ikasleek Barberaren kontrako erreferenduma egingo dute datorren ostegunean / 9

NAZIOARTEA

Irakeko ejerzitoak bonba atomikoa lortzeko ahaleginetan segitzen du / 22